# ERROMAKO MEZA LIBURUA GEHIGARRIA

# *MISAL ROMANO SUPLEMENTO*

2025 iraila / septiembre

*Erromako Meza liburuaren* gehigarri hau, liburuaren argitalpenaz geroztik onartutako mezekin osatua dago.

El presente suplemento del *Misal Romano* está formado por las misas aprobadas con posterioridad a la publicación de dicho Misal.

© Euskarazko testuarentzat: Euskal Herriko Elizbarrutiak

Para el texto en euskera: Las Diócesis de Euskal Herria

© Gaztelaniazko testuarentzat: Espainiako Gotzainen Batzarra

Para el texto en castellano: Conferencia Episcopal Española

# ERROMAKO MEZA LIBURUA
# GEHIGARRIA

# *MISAL ROMANO*
# *SUPLEMENTO*

27 de febrero

# San Gregorio de Narek, abad y doctor de la Iglesia

Del Común de doctores de la Iglesia, (p. 881), o del Común de santos: para un abad (p. 894).

## Oración colecta

Dios todopoderoso y eterno
que te has dignado colmar de ciencia mística
a san Gregorio, maestro y honor del pueblo armenio,
haz que, siguiendo sus enseñanzas,
aprendamos el arte de dialogar contigo
y a sostener siempre nuestra vida
con los sacramentos de la Iglesia.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

# Narekeko San Gregorio, abadea eta eliz irakaslea

Eliz irakasleen (981. or.) nahiz santuen (abadearentzat, 995. or.) Betikotik.

## Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
jakintza mistikoan oso aditua egin nahi izan duzu
Gregorio santua, irakaslea eta Armeniako herriaren ospea;
bera irakasle dugularik,
emaguzu Zurekin hitz egiteko jakinduria
eta sendotu gure biziera beti Elizako sakramentuez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

29 de mayo

# San Pablo VI, papa

Del Común de pastores: para un papa (p. 866)

## Oración colecta

Oh, Dios,
que confiaste el cuidado de tu Iglesia al papa san Pablo,
apóstol valiente del Evangelio de tu Hijo,
concédenos que, iluminados por sus enseñanzas,
podamos colaborar contigo
para extender en el mundo la civilización del amor.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Maiatzaren 29

## San Paulo VI.a, aita santua

Eliz artzainen (aita santuarentzat, 965. or.) Betikotik

### Otoitza

Oi Jainko,
zure Eliza gidatzeko eginkizuna eman zenion
zure Semearen Ebanjelioaren
apostolu arduratsu izan zen Paulo aita santu dohatsuari:
egizu, arren, haren irakaspenez argiturik,
zure lankide izan gaitezela
maitasunaren zibilizazioa munduan zabaltzen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

29 de julio

# Santos Marta, María y Lázaro

Memoria

**Antífona de entrada** *Lc* 10, 38-39

Entró Jesús en una aldea, y una mujer llamada Marta lo recibió en su casa.

**Oración colecta**

Oh, Dios,
tu Hijo llamó a Lázaro del sepulcro a la vida,
y se dignó hospedarse en casa de Marta,
haz que, sirviéndole a él fielmente en nuestros hermanos,
merezcamos, con María, ser alimentados
con la meditación de su palabra.
Él que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

**Oración sobre las ofrendas**

Señor, al proclamarte admirable en tus santos,
suplicamos humildemente a tu majestad
que, así como te agradó el obsequio de su amor,
aceptes de igual modo nuestro servicio.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

**Antífona de comunión** cfr. *Jn* 11, 27

Dijo Marta a Jesús: «Tú eres el Cristo, el Hijo del Dios vivo, el que tenía que venir al mundo.

Uztailaren 29

# Marta, Maria eta Lazaro santuak

Oroipena

**Sarrera-ant.** *Lk* 10, 38

Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen.

**Otoitza**

Oi Jainko, zure Semeak
hilobitik bizira itzularazi zuen Lazaro,
eta Martaren etxean hartu nahi izan zuen ostatu;
egizu, Kristo leialki zerbitza dezagula geure senideengan
eta, Mariak bezala hausnartuz,
haren hitzaz janaritu gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

**Oparigaien gainekoa**

Zure santuengan Zu miresgarri
ageri zarela aitortzen dugu, Jauna,
eta Zuri, Jaun handi horri, apalik eskatzen dizugu:
haien maitasun-zerbitzua gogoko gertatu zitzaizun bezala,
izan dadila Zuretzat atsegingarri gure zerbitzu apal hau.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Jaunartze-ant.** ik. *Jn* 11, 27

Martak esan zion Jesusi: Zu Mesias zara, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena.

### Oración después de la comunión

Señor, que la santa comunión
del Cuerpo y la Sangre de tu Unigénito
nos aparte de todas las cosas perecederas,
para que, a ejemplo de los santos Marta, María y Lázaro,
podamos servirte en la tierra con amor sincero
y gozar eternamente de tu contemplación en el cielo.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

### Jaunartze ondorengoa

Zure Seme bakarraren Gorputz eta Odol santuak
hartzeak aldendu gaitzala, Jauna, gauza galkorretatik,
Marta, Maria eta Lazaro santuek bezala
lur honetan maitasun zintzoan aurrera egin dezagun
eta zeruan Zu ikusteaz poztu gaitezen beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

5 de septiembre

# Santa Teresa de Calcuta, virgen

Del Común de vírgenes: para una virgen (p. 884) o del Común de santos: para santos que practicaron obras de misericordia (p. 899).

## Oración colecta

Oh, Dios, que llamaste a santa Teresa, virgen,
para que correspondiera al amor de tu Hijo,
sediento en la cruz,
con una eximia caridad hacia los más pobres,
te pedimos que nos concedas, por su intercesión,
servir a Cristo en los hermanos afligidos.
Él que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

## Irailaren 5

# Kalkutako Santa Teresa, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (erruki-egintzak bete zituztenentzat, 1001. or.) Betikotik.

### Otoitza

Oi Jainko, Zuk dei egin zenion Santa Teresa birjinari,
behartsuekiko karitate bikainez erantzun ziezaion
gurutzean egarri zen zure Semearen maitasunari;
emaguzu, haren otoitzari esker,
Kristo bera zerbitza dezagula senide atsekabetuengan.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

17 de septiembre

## Santa Hildegarda de Bingen, virgen y doctora de la Iglesia

Del Común de vírgenes: para una virgen (p. 884) o del Común de santos: para una monja (p. 896).

### Oración colecta

Oh, Dios, fuente de la vida
que llenaste de espíritu profético
a santa Hildegarda, virgen,
haz que, ayudados por su ejemplo e intercesión,
conozcamos tus sendas
y, en medio de las tinieblas de este mundo,
percibamos la claridad de tu luz.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Irailaren 17

# Bingengo Santa Hildegarda
# birjina eta eliz irakaslea

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (lekaimearentzat, 998. or.) Betikotik.

## Otoitza

Oi Jainko, biziaren iturria,
profezia-espirituaz bete zenuen
Santa Hildegarda birjinari;
haren etsenplu eta otoitzari esker,
emaguzu zure bideak jakitea
eta mundu honetako iluntasunaren erdian
zure argiaren distira izatea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

8 de octubre

## Santa Faustina Kowalska, virgen

Del Común de vírgenes: para una virgen (p. 884).

### Oración colecta

Oh, Dios,
que elegiste a santa Faustina
para difundir las inmensas riquezas
de tu infinita misericordia,
concédenos, por su intercesión,
que, siguiendo su ejemplo.
confiemos plenamente en tu bondad
y podamos hacer generosamente obras de caridad.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Urriaren 8an

## Santa Faustina Kowalska, birjina

Birjinen (bakarrarentzat, 985. or.) nahiz santuen (erlijiosentzat, p. 999) Betikotik.

### Otoitza

Oi Jainko,
zure erruki neurrigabearen aberastasun handiak
ezagutarazteko eginkizuna eman zenion
Faustina santuari;
egizu, haren otoitza lagun dugula
eta haren etsenpluari jarraituz,
konfiantza osoa izan dezagula zure ontasunean
eta erruki-egintzak bete ditzagula bihotz-zabaltasunez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

10 de diciembre

## Bienaventurada Virgen María de Loreto

Del Común de la bienaventurada Virgen María (p. 838).

### Oración colecta

Oh, Dios,
que, cumpliendo lo prometido a nuestros padres,
elegiste a la bienaventurada Virgen María
para ser la Madre del Salvador,
concédenos seguir el ejemplo
de quien te agradó con su humildad
y nos benefició con su obediencia.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Abenduaren 10ean

# Loretoko Maria Birjina dohatsua

Maria Birjina dohatsuaren Betikotik (935. or.).

## Otoitza

Oi Jainko, lehen-gurasoei egindako agintzariak betez,
Maria Birjina dohatsua aukeratu zenuen
Salbatzailearen ama izan zedin;
emaguzu haren etsenpluari jarraitzea,
haren apaltasuna gogoko izan baitzen zuretzat
eta haren obedientzia onuragarri guretzat.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

# 50. MISA PARA EL CUIDADO DE LA CREACIÓN

**Antífona de entrada** *Sal* 18, 2

El cielo proclama la gloria de Dios, el firmamento pregona la obra de sus manos.

**Oración colecta**

Dios Padre,
que en Cristo, primogénito de toda la creación,
has llamado todas las cosas a la existencia,
haz que, dóciles al aliento de vida de tu Espíritu,
custodiemos con amor la obra de tus manos.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

**Oración sobre las ofrendas**

Recibe, oh, Padre,
estos frutos de la tierra y del trabajo de nuestras manos,
perfecciona en ellos la obra de tu creación,
para que, trasformados por el Espíritu Santo,
sean para nosotros comida y bebida de vida eterna.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

**Antífona de comunión** cfr. *Sal* 97, 3

Los confines de la tierra han contemplado la salvación de nuestro Dios.

# 50. KREAZIOAREN ZAINTZARAKO MEZA

**Sarrera-ant.** *Sal* 19 [18], 2

Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen, ortziak haren eskuen lana iragartzen.

**Otoitza**

Jainko Aita,
izaki guztietan lehen-sortua den Kristogan
gauza guztiak izatera deitu dituzu;
egizu, zure Espirituaren bizi-arnasaren esana betez,
maitasunez zaindu dezagula zure eskuen lana.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

**Oparigaien gainekoa**

Onartu, oi Aita,
lurraren eta gure eskuen lanaren fruitu hauek,
eraman horiengan bere betera zure kreazioaren lana,
Espiritu Santuak eraldaturik
betiko biziaren janari eta edari izan daitezen guretzat.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Jaunartze-ant.** ik. *Sal* 98 [97], 3

Munduko bazter guztiek ikusi dute gure Jainkoaren salbamena.

### Oración después de la comunión

El sacramento de unidad
que hemos recibido, oh, Padre,
acreciente la comunión contigo y con los hermanos,
para que,
esperando unos cielos nuevos y una tierra nueva,
aprendamos a vivir en armonía con todas las criaturas.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

## Jaunartze ondorengoa

Oi Aita,
hartu dugun batasun sakramentuak
areagotu dezala gugan zurekiko eta senideekiko batasuna,
zeru eta lur berriak itxaronez,
izaki guztiekiko harmonian bizitzen ikas dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

MISA PARA EL CUIDADO DE LA CREACIÓN

# LECTURAS BÍBLICAS

## LECTURA DEL ANTIGUO TESTAMENTO

*Sab* 13, 1-9 «*Si han sido capaces de escudriñar el universo, ¿cómo no encontraron a su Señor?*».

[*Leccionario III-impar.* 597. or.; viernes XXXII del Tiempo Ordinario]

## LECTURA DEL NUEVO TESTAMENTO

*Col* 1, 15-20 «*Todo fue creado por él y para él*».

[*Leccionario III-impar.* 433. or.; viernes XXII del Tiempo Ordinario]

## SALMO RESPONSORIAL

*Sal* 19 [18], 2-3. 4-5b

[*Leccionario III-impar.* 598. or.; viernes XXXII del Tiempo Ordinario]

*Sal* 104 [103], 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 24 eta 35c

[*Leccionario III-impar.* 120. or.; lunes V del Tiempo Ordinario]

## ALELUYA

*Sal* 104 [103], 24 Cuántas son tus obras, Señor.
Todas las hiciste con sabiduría.

*1 Cro* 20, 11d. 12b Tú eres rey y soberano de todo.
Tú eres Señor del universo.

## EVANGELIO

*Mt* 6, 24-34 «*No os agobiéis por el mañana*».

[*Leccionario I-A.* 274. or.; domingo VIII del Tiempo Ordinario]

*Mt* 8, 23-27 «*Se puso en pie, increpó a los vientos y al mar y vio una gran calma*».

[*Leccionario III-impar.* 264. or.; martes XIII del Tiempo Ordinario]

KREAZIOAREN ZAINTZARAKO MEZA

# BIBLIAKO IRAKURGAIAK

## IRAKURGAIA ITUN ZAHARRETIK

*Jkd* 13, 1-9 «*Munduaren barne-egitura ezagutzeko bezain jakintsu badira, Nolaz ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu?*».

[*Irakurgaiak III.* 423. or.; Urtean Zeharreko XXXII. ostirala; I. urtea]

## IRAKURGAIA ITUN BERRITIK

*Kol* 1, 15-20 «*Gauza guztiak beraren bidez eta berarentzat dira eginak*».

[*Irakurgaiak III.* 142. or.; Urtean Zeharreko XXII. ostirala; I. urtea]

## ERANTZUN-SALMOA

*Sal* 19 [18], 2-3. 4-5b

[*Irakurgaiak III.* 424. or.; Urtean Zeharreko XXXII. ostirala; I. urtea]

*Sal* 104 [103], 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 24 eta 35c

[*Irakurgaiak II.* 128. or.; Urtean Zeharreko V. astelehena; I. urtea]

## ALELUIA

*Sal* 104 [103], 24 Bai ugariak, Jauna, Zuk eginak!
Denak jakinduriaz egin dituzu.

*1 Kro* 20, 11d. 12b Zeureak, Jauna, erregetza eta gauza guztien nagusitza.
Zeure esku dituzu indarra eta ahalmena.

## EBANJELIOA

*Mt* 6, 24-34 «*Ez kezkatu biharko egunaz*».

[*Irakurgaiak II.* 207. or.; Urtean Zeharreko VIII. igandea; A. urtea]

*Mt* 8, 23-27 «*Zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen*».

[*Irakurgaiak II.* 375. or.; Urtean Zeharreko XIII. asteartea]

IDATZ

argitaletxea

mintzo eta kantu

LITURGI ETA PASTORAL LAGUNGARRIAK

Liturgia eta Espiritualitate Pastoraltzarako Gotzain Ordezkaritza
Heriz Pasealekua, 82 - 20008 DONOSTIA
✆ 943 285 000
mintzoetakantu@elizagipuzkoa.org
www.elizagipuzkoa.org